



ASMAKIZUNAK

Materiala:

Asmakizun-fitxak, folioak edo arbeltxoak, eta idazteko errotulkiak edo klarionak

Jokatzeko era:


Ikasle batek asmakizuna irakurriko du. Gainontzeko ikasleak, taldeka antolatuta daudelarik, igartzen saiatuko dira. Talde bakoitzak erantzuna folio edo arbel txiki batean idatziko du. Denbora agortzen denean, batera erakutsiko dute idatzitako erantzuna. Asmatzen duten taldeentzat, puntu bana.

Hegazti antza du baina
halere ugaztuna; egunez lo
eta gauz esna; jaioberritan
ere zarradu izena
Zer dela eta, zer da?



Saguzarra

Buruan gorrixka du ilea
Aurpegia garau horiz betea,
Ez bakarrik abereen janari
Baita ere gizakion elikagai
Zer dela eta, zer da?



Artoa

